

Txikitasunetik

Itzea Urkizu
Arsuaga

Etorkizuna aukeratu egiten dugula sinestarazten digute tarteka, eta Kazetaritzaren eta Euskal Filologiaren arteko amildegia estuan jarri ninduen ni, selektibitate ondorenak. Kontuak zer diren: bigarrena aukeratu, eta ikasketak amaitu aurretik lehenengoa lanean hasteko zortea izan nuen. Beti maite izan dudana zer baitetzan, beti maite izan dudana nonbait: euskaraz, idazten, nire herrian eta nire herriaz. Honezkero pasatu dira zortzi urte, beste hainbeste inauteri eta bi udal agintaldi oso. Eta gertuko zaizkigun ordezkari politikoak aukeratzera goazen honetan, ezin izan diot gai honi beste prisma batetik begiratu: tokiko komunikabideenetik.

Aitor dezadan, obsesio puntu batek harapatu izan nauela, hauteskunde garaiko testuetan objektibotasuna mantentze horretan. Izan ere, kazetarion lana horretara mugatzen da, ia, kanpainan: haizeak eramango dituen promesak, zaplazteko dialektikoak, benetako besarkadak, bizkarrean emandako labankadak nahiz zintzotasunez landutako proiektuak, guztiak, kalkulu zorrotzenen mugetan kontatzen. Eta, hala ere, ez da nahikoa izaten.

Sigla, akronimo, talde eta alderdi bakoitzak baitu bere lupa propioa, kanpainaren jarraipenari begiratzeko, eta kontu naturala iruditzen zait. Irudipena dut, ordea, euskarazko komunikabide txikiok ez ote diguten, erabat, lupa horretatik

begiratzen. Gure gertutasunak ez ote duen egiten, beste zenbait medioren distantzia hotsandikoaren alde. Gure txikitasunean, ez ote garen haien asmo handiak handiegi bilakatzeko itxaropen faltsua. Gure ahalegina ez ote den neuritzen, hauteskunde gauean zenbatutako botoen arabera.

Ez, ez naiz haserretik ari. Eta bai, hau guztia esanda ere, bihar nire botoak kutxan sartzerako joango naiz, geure buruak eta bizitzak zaintzeko aukera eskaintzen didatenean alde. Botoak kutxan sartzerako joango naiz, pentsatuz, hamabost eguneko lehia politiko honek gehiago duela lehia-tik, eta etzi hasiko dela politika. Pentsatuz, etorkizun zati bat aukeratuko dudala. •

«Fast food» ikuskizunen porrota

Koldo Sagasti

Pasa den asteburuan *Final Four* edo Lauko Finala antolatu zuten Gasteizen, izenak berak argi dioen bezala, Euroligako lau txapeldungaiak aurrez aurre jartzen dituen saskibaloia ikuskizuna. Kirol ekitaldia asteburuko hiru egunetan egin behar bazuten ere, hiriko mandatariak eta euren kordako prentsako hedabideak asteak zeramatzen etengabeko matrazkaz espektakuluaren onurak goraipatzen. Finalak akuilu bat izan behar zuen hiriko ekonomiarentzat; gure probintziako hiriburu xumea nazioarteko arreta mediatikoaren jomugan jarrita, gureganatzekoak ziren milaka eta milaka kirol turistek pizgarri izan behar zu-

ten bertako ostalaritza eta zerbitzuen arloarentzat. Usteak erdi ustel. Elite batzuen eragiketa komertziala eskandaluzko porrota izan da. Asteburuan gasteiztar guztion ahotan zebilena ez zen nork irabazi ote zuen halako partida, baizik eta non ote zeuden hiriko karrikak gainezka bete behar zituzten zaletu errusiar eta turkiarrak. Eurentzat hiriko erdialdean propio egokitutako aisiguneak *-fun zone* deitzen diete ingelesez izendatzeak glamour handiagoa emango dielakoan- hutsik zeuden; eta okasioa baliatuta prezioak puztu zituzten ostalaritza negozioak hustuago.

Baina Gasteizen asteburuan porrot egin zuena ez zen izan bakarrik enpre-

sari talde baten negozioa, eta, bide batez, galera izugarriei aurre egin beharko dien udaleko diru-kutxa. Agerian geratu zena *fast food* ekonomia ereduia izan zen; alegia, gutxi batzuen patrikak denbora laburrean, modu errazean eta baliabide publikoen kontura betetzearena.

Azken urteotan hiriko herri ekimenak erakutsi du iragan asteburukoak baino pertsona gehiago biltzen dituzten ospakizunak antolatzeke gai dela, autogestionatuak eta parte hartzaileagoak; urrunera joan gabe, larunbatean bertan Gasteizko kaleetan lagun andana bildu zuen AHTren aurkako festa giroko protestaldia. Horiexek bai direla hiriko motorra, elkarbizitzaren hauspoa. •